

KAPITALISMO HETEROPATRIARKALARI PLANTO! **BIZITZAK ERDIGUNERA**

2019ko Martxoaren 8an emakumeok, transok eta bollerok lan guztiak utziko ditugu eta kaleak hartuko ditugu berriro ere. Orain arte egindako prozesuari dagokionez, herri, eskualde eta maila nazionalen antolatzen hasi gara asanblada ireki zein batzordeetan. Aurten, gure aldarrikapenak zehaztu nahi genituen eta oinarri politiko amankomun batzuk ipini. Horretarako kolektibo ezberdinekin elkartu gara eta dossier bat idatzi dugu. Bertan, eremu ezberdinetan antolatuta dauden emakumeen aldarrikapenak bildu ditugu, 25 puntu baino gehiago bildu ditugularik. Greban, jendarte osoa eta instituzioak interpelatuko ditugu horiekin. Hurrengo lerroetan grebaren nondik norakoak azalduko ditugu:

1. ZER DA GREBA FEMINISTA?

Greba feminista bizitzako esparru guztietan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, sexualitatean, kontsumo ereduan, familia eraikitzeke moduan, jakintzak ekoizteko eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun ereduan eta zapalkuntza guztien aurrean. Greba feministarekin, hetero-patriarkatu-kapitalistari PLANTO egingo diogu!


Martxoaren 8an patriarkatuak alboratzen gaituenok erdigunea hartuko dugu, transon, bollerok eta emakumeon bizitzak erdigunean jarri nahi ditugulako. Horregatik, **best ardatzetan** antolatu dugu greba: **pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da.**

Sistemarekiko haustura hori irudikatzeke, gaurkoan TALKAN elkartu gara, mundu asko eta berriak kabituko diren mundu bat eraiki eta kapitalismoari arrakalak sortu ahal zaizkiola erakusten duelako. Bide batez, espazio autogestionatuekiko babesak adierazi eta hauen desalajeen aurkako posizioa berresten dugu gaur.

2. ZER ESKATZEN DUGU?

Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu. Horretarako, **zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatzen dugu, politika publikoen zeharkako ardatza izan dadila, pertsonen zaintza ez dadila zapalduon bizkarrean geratu.** Finean, **paktu sozial berri bat eskatzen dugu.** Bide horretan, parekidetasuna bermatzeko politikak eta berdintasun formalaren garapena ezinbestean uztartu behar ditugu sakoneko eraldaketa prozesu batekin.

Aurten, zaintzaren gatazkari zentralidadea eman nahi diogu. Horregatik, etxeke eta zaintza lanetan, soldatapean zein modu doakoan, dauden emakumeekin* aliantzak sortzera, estutzera eta indartzera goaz eta lan hauek azalertzeko moduak bilatzera, etxeke langileen esplotazioarekin aberasten diren enpresa banpiroak seinaltzera edota administrazioaren



arduragabekeria salatza dei egiten diegu grebaren antolakuntzan parte hartuko duten kideei.

Bestetik, m8ko egunean bertan, gizonei zaintza lanen ardura guztia modu autonomoan hartu eta antolatzea eskatzen diegu: lantoki zein herrietan zaintza gunekomunitarioak antolatuz, norberaren eginkizunetarako eguna hartuz eta inguruan (familia, bizilagun, lagunarte... inguruan) dituzten zaintza lanak bere eginez.

3. ZEIN DA GREBAREN SUBJEKTUA? Nortzuk egingo dugu greba?

Emakumeak, bollerak eta transak, hau da, heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektuak gara. Greba feministaren subjektu guztiak ez gara emakume bezala izendatzen. Are gehiago, iruditzen zaigu emakume eta gizon kategoria patriarkalekin amaitu beharra dagoela. Baina, gaur egun, kategoria hori baliagarria zaigu zapalkuntza izendatzeko. Beraz, **emakume* hitza erabiltzen dugunean, heteropatriarkatuak zapal dutako subjektuez ari gara.**

GREBA EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTAK DEITZEN DU. Egund honetan, beraz, Mugimendu Feministak hiri eta herrietan deitutako mobilizazioetan parte hartzera animatzea eskatzen dugu, eta ez beste eragile batzuk deitu dezaketenen ekimenetan. Modu berean, greba feminista dinamikaren irudi eta aldarrikapenak erabiltzera deitzen dugu, sindikatu, alderdi edo beste edozein erakunderen sigla eta koloreen protagonismoa ekidinez.


Gauzak horrela, ez dugu Mugimendu Feministaren borroka inor xurgatzerik onartuko, ezta honen erabilpen alderdikoi edo korporatibista interesaturik ere.

4. NOLA EGINGO DUGU GREBA?

laz bezala, greba egiteko eta grebaren parte izateko hainbat modu egongo dira emakumeontzat*:

- 1) Lantoki eta ikasgeletan greba egitea.
- 2) Herri eta hirietako mobilizazioetara joatea.
- 3) Zaintzeari uztea eta, hori irudikatzeke, amantala balkoian eskegitzea.
- 4) Gure eskualde edo arloan greba antolatzea eta zabaltzea.
- 5) Besoko morea eta txapa ipintzea, grebarekin bat egiten dugula adierazteke.

Baina ezin ahaztu kontsumo greba izango dela ere! Martxoak 8an EZ kontsumitzera deitzen dugu. Badakigu kontsumoa oso zabala dela, eta komertzio bateko salerosketa gaintzen duela (argia, mugikorra...). Baina martxoaren 8an eguneroko normaltasunarekin apurtu nahi dugu, hiriak, herriak eta auzoak geldiaraziz. Beraz, dena itxita egotea da helburua.



Kontsumo arduratsu eta jasagarria garatzeko deia egiten dugu. Gure konpromiso politikoa kontsumitzerakoan hartzen ditugun erabakietan isla izan behar duelako. Kontsumitzen dugunean ekoizpen eredu bat edo beste sustatzeko boterea dugulako. Hortaz, langileen esplotazioaren ikur diren enpresei, beren publizitatean emakumeoi* objektutzat hartzen gaituzten horiei, beste herrietako miseria eragiten duten multiunazional handiei planto! Martxoaren 8an eta egunero!

5. ZERI EGINGO DIOGU PLANTO?

Eguno zapalkuntza sistema basatia ezin dugu termino bakar batekin definitu. Elkar elikatzen eta osatzen duten hainbat egitura ditu.

KAPITALISMOARI PLANTO!

Kapitalaren interesak erdigunean jartzen duelako, eta ez bizitza, eta ez pertsonen beharrak. Langileen miseria eragiten duelako. Eta lan antolaketaren oinarrian emakumeok musutruk egiten dugun etxeko eta zaintza lana kokatzen duelako, gure lanaldiak amaigabeak bihurtuz!

Gainera, kapitalismoak feminismoaren indar eraldatzailea mehatxu bezala ikusi du eta orain gure borroka kontsumorako produktu bihurtu eta eduki politikoz husten saiatzen ari da. Aurrean izango gaitu!

PATRIARKATUARI PLANTO!

Botere sistema bat da, "gizon" bezala eraikiak izan direnen gobernua. "Emakume" bezala eraikiak garenon dominazioa dakar, eremuz eremu: enplegu prekarioak, lan doakoa, indarkeria matxista eta femizidioak, injustizia patriarkala, gure gorputzen kontrola, publizitate sexista, emakumeon* inbisibilizazioa zientzian... Aski da, honaino heldu gara!!!


HETEROARAUARI PLANTO!

Erregimen oso bat da. Heterosexualitatea ez da, soilik, desira edo orientazio kontu bat, sistemak behar-beharrezkoa duen egitura bat baizik. Arauaren bazterrean kokatzen garenok LGBTIQ+ fobiaren bitartez zigortzen gaituzte, eta, emakumeoi*, bizitza eredu bakarra markatzen digu: feminitatearen eredu jarraitzea, derrigorrezko heterosexualitatea, gizonen desirak asebetetzea, amatasun normatiboa, familia nuklearraren eta etxearen zaintza ... Guk heteroaraurik gabeko bizi eredu anitzak aldarrikatzen ditugu!

KOLONIALISMOARI PLANTO!

Mundu kolonial batean bizi gara, desoreka baitago pertsonen eta lurraldeen arteko harremanen artean. Herrien asimilazio historikoaren bitartez, pribilegio sistema bat ezarri da, bazterketak eraginez hainbat mailatan: arraza, kultura, kosmobisioa, ezagutzak, sinesmen erlijiosoak, bizitza ereduak, hizkuntzak ...

Kapitalismoak arrazializatutako gorputzoi deshumanizatu egiten gaitu eta eskubideez desjabetu. Mundu mailan faxismoaren gorakada bizi dugun honetan, arrazismoa,



islamofobia eta Europako migrazio politika hiltzaileen aurrean, inoiz baino gehiago, gure feminismo antiarrazistaz astinduko dugu kalea!

KAPAZITISMOARI PLANTO!

Kapazitismoak honexetan datza: aniztasun funtzionala duten pertsonak alboratzean eta ez-gaitu bezala eraikitzean. Ekoizpen sistemara egokitzen diren gorputz ahaldun eta ez ahaldunak ezartzen dira, eta azken hauek inklusiboak ez diren bizi ereduera egokitu behar gara.

...

Beraz, dei egin nahi diegu Euskal Herri osoko emakume, trans eta bollerei antolatzerara, kaleak aldarriz betetzera, bihurriak izatera eta Martxoaren 8an planto egin eta kaleak, plazak zein gauak hartzera.

Azkenik aipatzea Euskal Herriko Mugimendu Feministak bat egiten duela gaur Gasteizen arratsaldeko 19:00etan Andra Mari Zuriaren enparantzan burutuko den elkarretaratzearekin. Izan ere, gure lagunak bere arrazaren ondorioz autobusean pairatutako umiliazioa ezin da erantzunik gabe gelditu. Ez hori, ezta beste edozein ere! Pertsona arrazializatu eta migratu guztien alde aterako gara kalera. Etengabe zapaltzen gaituen sistema kolonialari aurre egiteko aterako gara!

**GORA BORROKA FEMINISTA!
EMAKUMEOK* GREBARA!**

SARE SOZIALAK:

TWITTER: @M8EuskalHerria

FACEBOOK: Emakumeok Planto @M8EuskalHerria

INSTAGRAM: m8_grebafeminista

BLOGA: <https://grebafeminista.wordpress.com/>

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

Gasteizen, 2019ko Urtarrilean.

